


WANTOKS: DANCE OF RESILIENCE IN MELANESIA

CINE INVISIBLE

FESTIVAL INTERNACIONAL
FILM SOZIALAK BILBAO



GIDA DIDAKTIKOA

www.kcd-ongd.org

info@kcd-ongd.org

Tel. 946 024 668



KCD GGKEREN INFORMAZIOA

Kultura Communication y Desarrollo KCD Garapenerako Lankidetzako Gobernuz Kanpoko Erakunde bat da, zeinaren helburua baita Komunikazio Soziala eta Kulturala sustatzea garapenerako tresna gisa.

KCD-GGKE onura publikodun izendatu dute, eta EAEko administrazio-erregistroan AS/B/14091/2008 kodea darama.

KCD GGKEaren oinarriak:

1. Herritar global eta konprometituak.
2. Komunikazio demokratiko eta anitza.
3. Baztertuta egon ohi diren kolektibo eta komunitateen integrazioa.
4. Genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea.
5. Aniztasun kultural, etniko, erlijiozko, politiko, sozial eta sexu-joerazkoa.
6. Giza Eskubideak, bai norbanakoenak, bai taldeenak.
7. Naturarekiko harreman iraunkorra.
8. Bake-kultura positiboa.
9. Berdintasunean oinarritutako harremanak, bai pertsonen artean, bai herrien artean.
10. Migrazio-prozesuak gizatiartzea.

KULTURA eta KOMUNIKAZIOA funtsezko osagarriak dira edozein pertsona, komunitate edo herriren GARAPEN prozesuan.

KCD GGKEak gizarte hobe baten sorreran bere alea jarri nahi du. Bertan, izatea gailentzen zaio edukitzeari, kultura eta naturaren aniztasuna daude oinarrian eta baztertuta dago edozein bortxakeria eta botere-gehiegikeria.

KCD GGKEak genero arteko berdintasunaren alde dihardu, aukera-berdintasunik ezak eragindako bidegabekeriak desagerrarazteko. KCD GGKEk premiazko deritzo txirotasuna, bereizkeria, kalteberatasuna eta gerrak bukaraztea; izan ere, milioika pertsonari eragiten diote mundu mailan, eta giza garapen iraunkorra galarazten dute.

KCDren lerro estrategikoa, Gizartea eraldatzeko hezkuntzan

- 1) Kultura eta gizarte-komunikazioa sustatu eta zabaltzea, lanabes garrantzitsu eta baliotsuak diren heinean Tokiko Giza Garapena lortze aldera.
- 2) Giza eskubideen, genero-parekidetasunaren, kultura artekotetasunaren eta garapen iraunkorraren zabalkunde eta promoziorako espazioak indartu eta hedatzea.

- 3) Kulturaren, komunikazioaren eta garapenaren inguruko egitasmoen eztabaida, elkartruke, hausnarketa eta sustapena garatzeko guneak indartu eta hedatzea.
- 4) Hainbat sektoretara bideratutako formazio- eta ahalduntze- guneak sortzea, batez ere emakumeek osatuta, garapenerako komunikazioan parte-hartzaile moduan.
- 5) Zinema-sektorean parekidetasuna sustatzea, batez ere gizarte-eraldaketari begira egindakoan.

Jarduerak:

1. Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia
2. Kultura, Komunikazio eta Garapenerako Nazioarteko Topaketa
3. Komunikazioa eta Garapenerako Eskola

Beste batzuen artean...

KCDren garapenerako kooperazio-egitasmoak gauzatzeko ildo estrategikoak

- 1) Munduan zehar garapenerako komunikazioan diharduten pertsona eta erakunde sareak sustatu eta laguntzea.
- 2) Txirrotutako herrialdeetan giza eskubideen sustapenerako lanak garatzea, kultura- eta gizarte- komunikazioaren bitartez.
- 3) Genero-parekidetasuna eta emakumeen ahalduntzea bultzatzea garapenerako kulturaren bitartez.

KCD GGKE-rentzat Garapenerako Lankidetzaren arloko lan-estrategia estu lotuta dago Hezkuntzaren eta Komunikazioaren ikusmoldearekin, Eraldaketa Sozialerako tresnatzat hartuta. Horrela, 2019rako KCD GGKE-k identifi katu eta babestutako proiektuek ardatz nagusitzat hartuko dituzte kontzeptu horiek, eta komunikazioa gehituko dute populazioek aurre egiten dieten errealitate desberdinen analisi eta aldaketarako faktore den aldetik.

Horretarako, KCD GGKE-tik, subjektu politikoen sorkuntza ahalbidetuko duten prozesuak bultzatuko dira, Giza Eskubideen eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eskakizun-ahalmena areagotzen laguntzeko.

Orobat, KCD GGKE-ko proiektuak Euskadin, ere badute Komunikazioa eta Heziketa Eraldatze Sozialaren ardatz bezala. KCD GGKE Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta bigarren hezkuntzako, batxillerko eta formazio zentroekin lankidetzat hitzarmenak ditu, haiekin ekintza ezberdinak garatzen ditu. Gainera, hainbat erakunde publiko eta pribatuekin, mugimendu sozialekin eta ONGDrekin kolaboratzen du bere proiektuak Euskadin aurrera eramateko.



WANTOKS: DANCE OF RESILIENCE IN MELANESIA

Iara Lee / Dokumentala

Salomon Uharteak, Bulgaria, Estatu Batuak / 2019 / 20 min.

J.B. Ingelesa, frantsesa / Gastelania, Euskara eta Ingelesa

5thseason@writeme.com

2018an, Salomon uharteak, Hego Pazifikoan, “Melanesiako Arte eta Kultura Jaialdia” antolatu zuten, herrialdearen independentziaren 40 urteak ospatuz. Bitartean, inguruko uharteetako herrialdeetan, askatasunaren aldeko borroka aurrera jarraitzen du, Mendebaldeko Papuak Indonesiako okupazioari eutsi baitio eta oraindik, Kaledonia Berriko biztanleak Frantziako agintepean bizi baitira. Melanesiako herrialde guztietan, egoiliarrek klima aldaketaren erronkari aurre egin behar diote, izan ere, itsas mailaren igoerak lurra eta tradizioa irensteko mehatxua dakar. Testuinguru kargatu honetan, artistek bertako talentua erabiltzen ari dira tokiko kultura ospatzeko eta beren uharten egoera larriaren gaineko nazioarteko arreta erakartzeko, elkartasuna pizteko eta berotzen ari den mundu baten arriskuen aurrean ekintza kolektiboa sustatzeko esperantzarekin.


WANTOKS: KOLONIALISMOA ETA KLIMA-ALDAKETA

Iara Lee zuzendariaren film honek planetako eskualde baten errealitatea hurbiltzen digu: baliabideen neurritz gaineko metatzearen ondorioak jasaten ditu, eta horrek ikaragarritzko ondorioak dakartza gizateriarentzat. Ozeano Pazifikoko uharte-multzo bat da Melanesia. Bertan, bi faktore hauek uztartzen dira: kolonizazioa eta klima-aldaketaren ondorioak.

Nazio Batuen Batzar Nagusiaren 1514. Adierazpenaren arabera, herrialde batek beste bat «azpiratzea, menderatzea eta esplotatzea» dakartza kolonizazioak. Nahiz eta historian zehar herrialde askok independentzia lortu duten menderatzen zituzten botereetatik, beste lurralde batzuek egoera horretan jarraitzen dute. Horren adibide dira Kaledonia Berria eta Mendebaldeko Papua.

Zuzeneko indarkeriaz gain, zapaldutako herrien bizimoduari ere eragiten dio kolonizazioak. Horren erakusgarri dira historian zehar tokiko tradizioen, kultur adierazpideen eta sinesmenen aurka egindako jazarpenak. Halaber, jendearen lan-baldintzen eta eguneroko ekonomiaren gainean ere ondorioak izan ditu kolonialismoak. Hala, kolonietako babes naturalez jabetzen dira potentzia kolonialak, eta bertako indigenei tratu hertsatzailea ematen diete. Horren ondorioak dira pobrezia, desberdintasunak eta klima-krisia.

Bestalde, esan dugun bezala, mundu osoan sortutako klima-krisiaren ondorio larriak jasaten ari da Melanesia. Itsasoaren maila igotzea kezka handia da biztanleentzat, eta dagoeneko bost uharte desagerrarazi ditu Pazifikoan. Iraganean suntsitutako beste batzuei gehitu behar zaizkie. Klima Aldaketari buruzko Adituen Gobernu arteko Taldeak (IPCCk) ohartarazi duenez, glaziarrak eta izotz-geruzak urteia da igoera horren eragilea. Hala, kostaldeko ekosistemak nozitzen ari dira jada itsasoaren maila igotzearen eta klimari lotutako beste faktore batzuen eragin kaltegarria.




Iturria: Greenpeace

Baina herrialde guztiek ez dute erantzukizun berbera urtzearen gainean. Izan ere, izotza urteia eragiten duten gas kutsatzaileen isurpena oso desberdina da herrialde batetik bestera. Emissions Database for Global Atmospheric Research (EDGAR) erakundearen arabera, bost herrialdek planeta osoko karbono dioxidoaren (CO₂-ren) ia % 60 eragiten dute. Ekonomiarik txikiak dituzten

herrialdeak —normalean planetako hegoaldean kokatuak— dira berotegi-efektuko gas gutxien isurtzen dituztenak.

Halere, Mendebaldeko Papuaren eta Indonesiaren kasuak agerian uzten duenez, atzerriko industria-jarduerak kaltegarriak dira isurpen gutxien sorrarazten dituzten munduko herrialdeetako ingurumenarentzat. Munduan CO2 gehien isurtzen duen hamaikagarren herrialdea da Indonesia, eta, erregimen kolonialaren bidez, Mendebaldeko Papuaren natur baliabideak ustiatzen ditu, gainera. Bi faktore horiek okertu egiten dituzte koloniako baldintza klimatikoak, eta, beraz, bertako biztanleen bizimodua lardaskatzen dute. Adibidez, Papuako basoen deforestazioak talka egiten du papuen kulturarekin, haien bizitza espiritualak lotura estua baitu ingurune naturalarekin.

Horrela, deforestazioaren edo itsas mailaren igoeraren ondorioz, besteak beste, bertako biztanleek beste toki batera joan behar izaten dute, euren bizilekua utziz, klimari lotutako arazoengatik. Iheslari klimatikoak deitzen zaie. Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ACNURek) dioenez, hondamendi naturalen ondorioz lekualdatzeko arriskuak bikoiztu egin dira 1970etik hona, gero eta pertsona gehiagok alde egin behar izaten baitute euren bizilekuetatik.



Iturria: UNEP Programa de Naciones Unidas para el Medio Ambiente.

Halere, testuingurua zaila bada ere, berotze globala geldiarazteko garaiz gaude oraindik. Horretarako tresna onak dira nazioarteko hitzarmenak, hala nola Kyotoko Protokoloa edo Parisko Hitzarmena, herrialde garatuek isurpenak

murrizteko konpromisoa hartzen baitute. Beste funtsezko bide bat ekoberrikuntza sustatzea da, garapen jasangarrira bideratutako teknologietan inbertituz. Europar Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren kudeaketa-planen barruan dago ekimen hori. Gainera, zerka ekologikoak ezartzea eta estatuen arteko hitzarmen komertzialetan klausula ekologikoak sartzea dira herrialde garatuen beste erronka batzuk.

Neurri politikoei lotuta, ordea, ezinbestekoa da herrialde industrializatueta kontsumo-maila jaitea. Naturarentzako Mundu Foroak (WWFk) dioenez, munduko biztanleria osoa biziko balitz estatubatuarrak bezala, bost Lur planeta beharko genituzke. Gainera, zarrastelkeria horrek eragina du garatzeko bidean dauden herrialdeetan, lurralderik aberatsenentzako baliabide-hornitzaile bihurtzen baitira. Hori dela eta, berebiziko garrantzia du nola lekualdatzen garen, nola kontsumitzen dugun eta zenbat energiaren hornitzen garen kontrolatzea.

Ildo horretan, mundu zabalean gero eta jende gehiago agertzen da ingurumena babestearen alde. Pew Research Center (PRC) ikerketa-zentroak inkesta bat egin zuen 2018an bost kontinenteetako 26 lurraldetan, eta ondorio hau atera zuen: inkestari erantzun zioten pertsonen % 67ren ustez, klima-aldaketa da gaur egun gure planetaren arazo nagusia. Planetaren egoerarekiko kezka dela eta, erakunde ekologisten aldarrikapenak eta klimaren alde azaltzen diren pertsonen eskaerak gero eta nabariagoak dira. Eginkizun horretan, gazteen mobilizazioa bereizi behar dugu.

Ikerketa eta erredakzioa	Aholkularitza
Eder Bas García	IES Mungia BHI (Mungia) CIFP Tartanga LHII, (Erandio)
Zuzenketa eta maketazioa	IES Ballonti BHI (Portugalete)
Greta Frankenfeld	CIFP Iurreta LHII, (Iurreta)
Ainhoa Pérez-Arróspide Navallas	IES Ibarrekolanda BHI (Bilbao)
Gorka López Arantzamendi	IES Aixerrota BHI (Getxo)
Leire Pascual Basauri	IES Artaza-Romo BHI (Leioa)
Juan Carlos Vázquez	CIFP Larburu LHII, (Barakaldo)
Joseba Villa González	IES Botikazar BHI, (Bilbao)
	CIFP Txurdinaga LHII (Bilbao)
	CIFP Elorrieta Erreka Mari LHII (Bilbao)
	UPV / EHU

KONTSULTARAKO DOKUMENTUAK

1- Kolonialismoa eta herrialdeen arteko desberdintasunak:

1514. Ebazpena, kolonialismoa:

<https://www.un.org/es/decolonization/declaration.shtml>

Desberdintasuna eta klima-aldaketa: <https://blog.oxfamintermon.org/afecta-el-cambio-climatico-a-la-desigualdad-social/>

<https://www.ecologistasenaccion.org/17916/desigualdad-y-cambio-climatico/>

CO2-ren isurpenak herrialdeen arabera:

<https://edgar.jrc.ec.europa.eu/overview.php?v=CO2ts1990-2015>

2- Izotza urtzea, itsasoaren maila igotzea eta ondorioak:

Pazifikoko uharteak desagertzea:

<https://www.lavanguardia.com/natural/20160510/401698135419/islas-nivel-mar-pacifico.html>

IPCCren txostena itsasoaren maila igotzeari buruz:

<https://www.ipcc.ch/srocc/download-report/>

Izotza urtzearen ondorioak: <https://es.greenpeace.org/es/trabajamos-en-oceanos/articulo/consecuencias-del-deshielo-del-artico/>

ACNUR eta iheslari klimatikoak:

<https://edgar.jrc.ec.europa.eu/overview.php?v=CO2ts1990-2015>

3- Arazoari aurre egiteko estrategiak:

Kyotoko eta Parisko nazioarteko hitzarmenak:

<https://www.consilium.europa.eu/es/policies/climate-change/international-agreements-climate-action/>

Europar Batasunaren ingurumen-erronkak: https://europa.eu/european-union/topics/environment_es

Desazkunde ekonomikoa: <https://www.youtube.com/watch?v=cNOPTPa-bl>

Gure aztarna ekologikoa kalkulatzeko: <http://www.footprintcalculator.org/>

Klima-aldaketa hezkuntzan, gogoetak lantzen eta jarrera iraunkorra sustatzen: <https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/comunicacion/unicef-educa-npnd-gida-ikasturteko-klima-aldaketa-haurren-eskubideak.pdf>